

bidez izenpea eskuordetuta

NAZIOARTEKO Pedro Maria libikativi asungoajaunak, UPV/E ialCAMBUSAzen dut dokun CAMPUS DE izkoarekin.

EXCELENCIA: goko buru: 7INTERNACIONAL 12ko era fa Triondo Bengoa, Secretario General de la certifica que, el presente documento

ción de firma, en virtud de la Resolución de tiembre de 2017, la jefe de negociado de

aria General (dot 2).

ERABAKIA, 2018ko APIRILAREN 20koa, 2018ko MARTXOAREN 22ko ERABAKI BIDEZ DEITUTAKO POLTSAK EGUNERATU ETA ZABALTZEKO ETA POLTSA BERRIAK SORTZEKO DEIALDIETARAKO ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEKO DENA

Egiaztatu egin dira honako

GERTAKARIAK

Lehenengoa. - UPV/EHUko errektorearen 22ko Erabaki bidez, hainbat deialdi publiko egin ziren UPV/EHUn irakasleen ordezkapen beharrei erantzuteko hautagaien poltsak eguneratu eta zabaltzeko eta hautagaiak poltsa berrietan sartzeko. Eskaerak aurkezteko azken eguna 2018ko apirilaren 19 ezarri zen, egun hori barne.

Bigarrena. - Informazio Teknologien Gerenteordetzak egiaztatu duenez, eskaerak aurkezteko eskainitako aplikazio informatikoa ez zebilen 2018ko apirilaren 19an, aipatutako deialdietara eskaerak aurkezteko epea amaitzen zen egunean, hain zuzen

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. - Kasu honi aplika dakizkioke: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA), 40/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa; Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzekoa (Otsailaren 3ko EHAA); Irakasleen Ordezkoak Izateko Gurakoen Zerrendak Gestionatzeko Arautegia; eta 2018ko martxoaren 22ko Erabakia, UPV/EHUn irakasleen ordezkapen beharrei erantzuteko hautagaien poltsak eguneratu eta zabaltzeko eta hautagaiak poltsa berrietan sartzeko deialdiei buruzkoa.

Bigarrena. - Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskumenak eskuordetuta, erabaki hau emateko, betiere Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean emandako gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia kontuan hartuta (otsailaren 3ko EHAA).

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa. - UPV/EHUko errektorearen 2018ko martxoaren 22ko Erabaki bidez deitutako poltsetara eskariak aurkezteko epea luzatzea 2018ko apirilaren 23 arte, egun hori barne.



NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

Bigarrena. - Erabaki hau argitaratzea UPV/EHUko web orrian, Deialdi eta Lehiaketen Ataleko eta campusetako errektoreordetzetako iragarki oholetan.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Leioan, 2018ko apirilaren 20an.

ERREKTOREA

Eskuordetuta: Irakasle ikertzaileen arloko errektoreordea

Sin.: Inmaculada Guerricagoitia Marina

